

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

KANPEZUKO UDALA

Kultura arloan 2020 dirulaguntzak emateko deialdia

BDNS (identifikatzailea): 499141

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoarekin bat etorriz, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean dago ikusgai: <http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans>.

Lehenengoa. Onuradunak

Onuradun izan daitezke dirulaguntza ematea arrazoitzen duen egoeraren batean dauden pertsona fisikoak eta juridikoak, edo oinarri arautzaile arauetan aurreikusten diren egoeretan daudenak.

Bigarrena. Xedea

Oinarri hauetan arautzen diren dirulaguntzen helburua da ondorengo proiektu eta jardura hauek finantzatzea, bai eta zenbait xede eta irizpide ezartzea ere herritarrei eta entitateei berdintasun, gardentasun, norgehiagoka, objektibitate, emakume eta gizonen berdintasun eta bereizkeriarik eza printzipioak bermatzeko, udal jarduna osatze aldera:

Kultura arloan:

- 1) Adinekoentzat: arte trebakuntza eta trebakuntza etengabea, aisia eta astialdiko jarduerak, bidaiak eta txangoak, etab.
- 2) Ume eta/edo gazteentzako hezkuntza, aisia eta astialdikoak.
- 3) Kultura ekimenak, jarduerak eta programak, eta arte trebakuntza.
- 4) Materiala erosteko, arte elkarte amateurrentzat: instrumentu materiala, partiturak; antzerkirako materiala, jantziak, etab.
- 5) Ikuskizunak antolatzeke eta egiteko.
- 6) Kultura bisitak egiteko.
- 7) Albisteen edizio idatziak edo euskarri digitalekoak sustatu eta garatzeko.
- 8) Begiraleak edota animatzaileak trebatzeko programetan parte hartzeko beka edo laguntzak: haurrei, gazteei, hirugarren adinekoei,... begira.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Korporazioko udalbatzak 2020ko martxoaren 3an onetsitakoak.

Laugarrena. Zenbatekoa

Kultura arloan:

Indarrean dagoen aurrekontuan 6.000 euro xedatu dira dirulaguntza hauetarako.

Dirulaguntzak borondatezkoak dira, eta alde aurretik jaso izanak ez du berriro jasotzeko eskubiderik sortzen.

Bosgarrena. Eskaerak aurkezteko epea

Eskaera, eredu ofizialaren arabera eginga (I. eranskina) eta udaleko alkateari zuzenduta, udaleko sarrera erregistroan aurkeztu behar da edo, bestela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeak 16. artikuluan jasotako bideetako batetik, hogeita hamar eguneko epean, deialdiaren iragarkia argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; eskaerarekin batera, deialdian adierazitako agiriak aurkeztu behar dira:

Seigarrena. Beste datu batzuk

Bai eskabidea, bai deialdia honako webgune honetan daude eskuragarri: <http://www.campezo.eus/ayuntamiento/subvenciones//eu> (izapideak/aurrez aurreko izapideak/dirulaguntzak).

Santikurutze Kanpezu, 2020ko martxoaren 6a

Alkatea

IBERNALO BASTERRA TXASKO